



## Pintxorik onena, Hernialde jatetxeko Felix Garridorena

**SARIAK** ▶ Bigarren Amets tabernako Riaño izan da; 3. Ordiziako Dominguez  
**ASTEA** ▶ Ekitaldi ugari izango dira gaur eta bihar Babarrun Astea dela-eta ▶ 4



Pintxo lehiaketako irabazleak: Ordizia, Amets eta Hernialde. N. LATABURU



## Gerontologikoaren Aldeko Plataformak dio ez dela plaza kopurua betetzen

**TOLOSA** ▶ Gerontologikoaren Aldeko *Eta orain zer?* Plataformak prentsurrekoa eman zuen herenegun eskualdean adineko-  
ei zuzendutako plaza kopurua «betetzen ez» dela salatzeko.  
«2010erako mapak aurreikusitakoaren arabera, 87 plaza faltako  
dira; lurralde desoreka nabarmena da Gipuzkoan». I. TERRADILLOS ▶ 4

**VILLABONA** ▶

## Aizkardik 22. Mendi Astea antolatu du ▶ 5

**LEITZALDEA** ▶

## Aisialdi tailerretan aritzeko begiraleak

Eguberrietarako  
behar dituzte ▶ 7

**HIZKUNTZAK**  
Hizkuntza eta kultureko zuzendutako IKOLETA  
Herriko eta hiriko ikastetxeetan, irakatsitakoak:  
▶ FRANTZESA • ALEMANA • ARABIERA • ERUKARRA  
▶ GREKERA • ITALIERA • Gertelara atzerrikoak  
▶ Japoniera • Ingaldeza

**ERREPORTZU  
KLASEAK**  
▶ FRINKA • KIMKA • MATEMATIKA • DISEÑUA

**ITZULPENAK**  
▶ INGELERA • ARABIERA • SARTZELARRA • ITALIERA  
▶ ARABARR SUTARR • ZUKUTARR

**TALDE TXIKIAK**  
▶ Arriko PERTSONALITETOR eta berak  
▶ LIZENTZIATUTAKO irakatsitakoak • Herrikoak berak

**MAILA GUZTIAK**

943 67 24 46

**UDABERRI**

**ESBART  
SANT  
MARTI**

**Azaroak 19**  
Beotibar pilotalekuan

Gaueko 22:30etan  
Sarrera dohan

hitza

BABARRUNAREN ASTEA ▶

# Pintxorik onena, Hernialde jatetxeko Felix Garridorena

Bigarren saria Aitor Riañok eraman zuen eta hirugarrena Mariluz Dominguezek



Pintxo lehiaketako irabazleak: ezker-eskuin, Ordizia taberna, Amets taberna eta Hernialde jatetxea. N. L.

## EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

### GAUR

#### Babarrun krema banaketa.

Tolosako ostalariek krema emango dute. Ondoren, 15 tarbenarik bazkaria egingo dute.

**Azoka berezia.** Triangulo plazan 20 saltzaile inguruk babarruna eta bestelako produktuak izango dituzte salgai.

### XVIII. Tolosako

#### Babarrunaren Ekoizleen

Lehiaketa. Trianguloan 20 ekoizle hartuko dute parte. 13:00etan emango dute epaia.

#### Babarrun irabazlearen

lakari bat enkantean. Lortutako dirua Malin nekazaritza eskola bat martxan jartzeko erabiliko da. Iaz 1.100 euroko kopurua lortu zen.

#### Babarrun eta sagardo

#### dastaketa.

Babarrunaren Kofradiak 25 kilo babarrun banatuko ditu, 12:00etatik aurrera, Trianguloan. Tolosaldeko sagardogileek kupela jarriko dute.

#### Samaniegoko ikasleen

kantua. Babarrunari egindako kanta abestuko dute, Triangulo plazan, 11:00etan.

#### Herriko ikasleen bertso

emanaldia. Hirukideko, Laskoraineko eta Samaniegoko LH6ko 11 gelatako ikasleek ordu erdiz eskainiko dute, Trianguloan, 12:30ean.

#### Txapela nork ondoen jantzi

**VII. Lehiaketa.** 11:30ean, Arostegieta kaleko Txinparta elkartean. 13:00etan emango dute irabazlearen izena.

#### 'Txuri beltz' emanaldia.

**Udaberri dantza taldearen eta Esbart San Marti taldearen emanaldia.**

Beotibar pilotalekuan, afalostean; 22:30ean.

### BIHAR

#### VIII. Artzain Txakur

**Txapelketa.** Lurramendiko belazetan, 10:30ean. **Urrezko Harri-jasotzaile eta Aizkolarien Eguna.** Beotibar pilotalekuan izango da, 12:00etan. Euskal Telebistak zuzenean eskainiko duen saioan 50 aizkolaria eta 15 harri-jasotzaile izango dira.

#### XIX. Tolosako Babarrunaren

#### Lehiaketa Gastronomikoa.

Gure Kaiola elkarteak antolatuta, Ferialekuan 20 bikotek hartuko dute parte lehiaketa gastronomiko honetan. Aurreko eguneko babarrun irabazlea maneatuko dute, ea nork egiten dituen ondoen. Emaiza 13:00etan jakinaraziko dute; ondoren, herri bazkaria izango da Ferialekuan.

### NOELIA LATABURU

Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketaren irabazleen berri eman zuten atzo goizean. Hernialde jatetxeko Felix Garrido, Amets tabernako Aitor Riaño eta Ordizia tabernako Mariluz Dominguez izan ziren irabazleak, hurrenez hurren. Babarrun Astearen harira antolatutako lehiaketa herenegun arratsaldean garatu zen eta 11 taberna eta jatetxek hartu zuten parte bertan: Fronton kafetegia, Nais kafetegia, Dicken's taberna, Ordizia taberna, Hernialde jatetxea, Triangulo kafetegia, Orbela taberna, Astelena jatetxea, Ikatza taberna, Cafe Iruña eta Amets taberna. Epaimahai lanetan, berriz, Javier Arresegor (Sukalde elkarte), Iñaki Garmendia (Gure Txokoa elkarte), Ignacio Malumbres



Pintxo irabazlea. N. LATABURU

## PINTXO LEHIAKETA ▶

### IRABAZLEAK

**Lehenengo saria.** Hernialde jatetxeko Felix Garridorentzat. Odolki ogia (aza purea gainetik duela) babarrun likidoz egindako kroketa batekin. Laguntzeko hirugiharra iberikoa, piperra eta babarrun kurruskariak.

**Bigarren saria.** Amets tabernako Aitor Riañorentzat. Saiheski, txorizo, aza eta odolki egosiarekin taloa egin, lbarrako piperrarekin. Ondoren milorriak egin, taloa jarri eta ore pittin batekin igurtzi eta babarrun ale egosiak, kolatuta, jarri ganean. Ondoren, babarrun salda gainetik.

**Hirugarren saria.** Ordizia tabernako Mariluz Dominguezentzat. Brik ästa babarrun kremarekin beteta, eta aza saltsa mehearekin lagunduta.

(Gure Kaiola elkarte), Jose Luis Garmendia (Txinparta elkarte) eta Jose Ignacio Telleria (Tolosako Babarrunaren Kofradia) izan ziren.

Aurkeztutako pintxoan «maila altua» azpimarratu zuten epaileek. «Batzuen aurkezpenak, pintxoak baino plater handiak izan dira, guztiak ere oso landuak». Irabazleak aukeratzeko garaian, «pintxoaren aurkezpena berritzailea eta, noski, edukia hartu dute aintzat. «Itxurari batetik bostera puntu eman dizkiogu eta zapo-reati, berriz, hamarrera». Irabazleak ere «pozik» azaldu ziren euren sariekin, eta haien «eskaintzaren barruan» errezeta barneratutako dutela adierazi zuten.

### Astebururako, gehiago

Babarruna osagai nagusi duen lehiaketa antolatutako ideia Gure Kaiola elkarteak sortu zuen, 1987. urtean, produktua promozionatzeko eta zabaltzeko. Baina lehiaketa hau Babarrun Astearen hasiera baino ez da izan. Horrela, gaur eta bihar artean hamaika ekitaldi izango da ikusgai Tolosan. Lehiaketa, azokak, bazkariak, eta bestelako ekintzak izango dira gazte zein helduentzat, guztiak ere babarruna ardatz dutelarik.

## MENDIA ▶

### Erniora irteera bihar Oargiko jaialdia amaitzeko

Eguerdian babarrun jatea egingo dute Oargi elkartean partaide guztiek

### N. LATABURU

Azkenekotan da Oargi elkarteak antolatutako mendi hamabostaldia. Hainbat ekitaldi prestatu ostean, bihar amaituko dute, Erniora egingo duten irteerarekin. 09:00etan abiatuko dira Oargititik bertatik. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute elkartean edo 630 57 93 95 telefono zenbakian.

Eguerdian, berriz, bazkaria izango dute partaideek, 14:30etik aurrera. Babarrun jatea egingo dute. Eta bazkaldu ostean, mendiko materiala zozketatuko dute.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

KULTURA ▶

# Dantza emanaldia izango da gaur gauean Beotibarren

Tolosako Udaberri eta Kataluniako Torrellas de Llobregat herriko Esbart Sant Marti dantza taldeek eskainiko dute



Tolosako Babarrun Astearen harira Udaberri dantza taldeak iaz Beotibarren eskainitako ikuskizuna. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Babarrun Astearen harira, dantza ikuskizuna izango da gaur gauean Beotibar pilotalekuan. Urtero bezala, herriko Udaberri dantzari taldeak izan du aurten ere emanaldi hori antolatzeko ardura, eta iazko moduan, ez dira Tolosakoak bakarrik ariko. Izan ere, Kataluniako dantza talde bat gonbidatu dute gaurko ikuskizunerako: Torrellas de Llobregat herriko Esbart de Sant Marti dantza taldea, hain zuzen ere.

22:30ean hasiko da dantza emanaldia, eta sarrera doan izango da. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak bat egin nahi izan du kultur ekimen horrekin, eta bere materiala jarriko du salgai bertan, ikuskizunak irauten duen bitartean.

Beste behin, «dantza bultzatzea» izango du helburu ikuskizunak. Euskal dantza indartzeko egiten zuten orain arte, baina areago jo nahi izan dute aurtengoan Udaberri dantzari taldekoek Kataluniako taldea gonbidatuz.

**XEHETASUNAK ▶**

Tolosako Babarrun Astearen baitan, dantza ikuskizuna izango da gaur gauean Beotibar pilotalekuan. Udaberri dantzari taldearekin batera ariko da Kataluniako Esbart Sant Marti dantza taldea. Hona hemen ikuskizunaren inguruko hainbat xehetasun:

**IKUSKIZUNA**

**Dantza.** Dantza saioa eskainiko dute Tolosako Udaberri eta Kataluniako Torrellas de Llobregat herriko Esbart Sant Marti dantza taldeek.

**Lekua.** Beotibar pilotalekuan.

1961ean sortu zen Esbart Sant Marti dantza taldea Kataluniako kultura sustatzeko helburuarekin, eta, zehazki, haien dantzak hedatzekoarekin, «herrien artean komunikatzeko modu ezin hobea» delako dantza: «Herrialde Katalanen nortasun gisa ulertzen ditugu gure dantzak, eta beren edertasuna eta esanahia ezagutzera emate

- Ordua.** 22:30ean.  
**Saioa.** Udaberri dantzari taldeak honako dantzak eskainiko ditu:
- ▶ *Agurra.*
  - ▶ *Belaunbingo.*
  - ▶ *Saltokakoa.*
  - ▶ *Soinu zaharrak.*
  - ▶ *Ezpata dantza.*
  - ▶ *Zinta dantza.*
  - ▶ *Xuletino.*
  - ▶ *Fandango/arín-arín.*
- Kataluniako taldeak, berriz, beste hauexek:
- ▶ *Jota des Pevet.*
  - ▶ *Balls de St. Juan.*
  - ▶ *Jotas de fiesta.*
  - ▶ *Gitanas de Rubi.*

tea izan dugu helburu hasierahaseratiko». Euskal Herrian, Herrialde Katalanetan, Frantzia, Alemanian, Danimarkan, Suitzan, Portugalen eta Errusian jardun dute, besteak beste, orain arte ikuskizunak eskaintzen.

Bihar Lizardi elkartean bilduko dira bi dantza taldeetako kideak, elkarrekin bazkaltze

HEZKUNTZA ▶

## Ikasleon Egunean parte hartzeko deia luzatu dute

Larrabasterran izango da hil honen 26an; txartelak 13 eurotan dira salgai



Ikasleek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena. HITZA

**N. LATABURU**

Datorren larunbatean, hilaren 26an, hain zuzen, Larrabasterran (Sopelan) Ikasleon Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Hori dela eta, Tolosaldeko Ikasle Abertzaleek deialdia luzatu dute, jendea bertara joatera anima dadin. Txartelak salgai daude dagoeneko Tolosako Intxurre eta Mescal tabernetan, 13 euroren truke.

Eta egun honen harira herenegun eguerdian manifesta-

zioa egin zuten Tolosako ikasletxe ezberdinetako ikasleek eta Tolosaldeko unibertsitate ikasleek *Arkatzak zorroteko garaia heldu da* lelopean. 110 ikasle inguru bildu ziren eta Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten, Bolognako prozesuari ezetza emateko. «Ikasle Abertzaleak ez da isildu honen aurrean, kazerolak eta guzti aritu gara», baieztatu zuten IA taldeko hainbat kideek manifestazioaren inguruan jarduterakoan.

**GIZARTEA ▶**

## Gazteekin lan egiten dutenentzako ikastaroa

**N. LATABURU**

Urtxintxa eskolak gazteekin lan egiten duten agenteei zuzenduriko ikastaroa bideratuko du, Tolosako Udaleko Gazteria sailak, Gizarte Zerbitzuek eta Berdintasunerako Zerbitzuak antolatuta. Hiru saio egingo dituzte guztira: hilaren 26an, martxoaren 18an eta maiatzaren 6an. Izen-ema-

tea hil honen 21a baino lehen egin beharko da, Gazte Informazio bulegoan edo 943 67 03 83 zenbakian.

Egitasmoaren helburu orokorra genero berdintasuna lantzea izango da, eta hori aurrera eramateko ekintza asko antolatuta dituzte sektore ezberdinei zuzenduta, besteak beste, hezitzaileei, begiraleei nahiz entrenatzaileei.

**iragarki laburrak ▶**

**Aireportuak.** Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Haur eskola publikoak.** Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzak. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendora eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Harreragileak.** Harreragile-telefonista. Udaletxetarako plaza libreak. Informa zaitetz

943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Sukaldari laguntzaileak.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbizariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.



GERONTOLOGIKOA ▶

# Plataformak salatu du gurean plaza kopurua «ez dela betetzen»

2010erako mapak aurreikusitakoaren arabera, 87 plaza faltako dira; lurralde desoreka «nabarmena» da Gipuzkoan



Gerontologikoko plataformako kideak herenegun eskaini zuten prentsaurrekoan. INIGO TERRADILLOS

I. TERRADILLOS- N. LATABURU

*Eta orain zer?* plataformak prentsaurrekoa eskaini zuen, herenegun, lurralde orekaren gainean jarduteko. Beraien esanetan, eta Gizarte Ekintza-

ko web orrialdean azalduko Gipuzkoako adineko ezinduen arreta eredua jasotzen duen txosten estrategikoaren informazioan oinarrituz, Tolosaldean txosten honetan aurreikusitaren diren puntuak ez dira betetzen.

Informazio hori aintzat hartuz, plataformako kideek udal ordezkariak eta hauek, aldi berean, Juntetako ordezkariak he-larazteko, «egungo gizarte politikako errealitatearen eta 2002ko

Errenteria, Hondarribia, Irun, Oiartzun eta Pasaia. Guztira, 8.  
**Deba Goiena/Deba barrena.** Arrasate, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza eta Oñati. Guztira, 8.  
**Urola Garaia, Erdia eta Kosta.** Aia, Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Getaria, Legazpi, Orrio, Urretxu, Zarautz, Zestoa eta Zumaia. Guztira, 11.  
**Tolosaldea/Goierri.** Beasain, Berastegi, Bidegoian, Idiazabal, Lazkao, Tolosa, Villabona, Zegama eta Zizurkil. Guztira, 11.

**PLAZAK GUZTIRA****Donostialdea:** 2.757.**Bidasoa-Txingudi/Oarsoaldea:** 963.  
**Deba Goiena/Deba barrena:** 970.**Urola Garaia, Erdia eta Kosta:** 618.**Tolosaldea:** 432.**Goierri:** 263.

mapan esaten denaren batera ezintasuna» azaltzen dituzten hainbat datu aurkeztu zituzten. Izan ere, aipatu txosten horren arabera, egoitzetako plazen betetze tasak %4,1era iritsi beharko luke, baina Tolosaldean «Gerontologikoa irekita egonda ere, 2010erako ez gara kopuru horretara iritsiko eta horrela jarraituz gero epe horretarako %2,8ko kopurua kokatuko ginatke, eta, ondorioz, aurreikusitako helburura iristeko 87 plaza faltako liriteke».

Lurralde desorekaren hainbat adibide ere zerrendatu zituzten plataformakoek. Esaterako, Zumarragako kasua, non Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatuak, Zumarragako egoitzaren irekierarekin, «probintziako batz bestekoaren gaintik» jarri zela adierazi zuen. Ernio Behea eskualdean, berriz, «azkenaldian egoniko berrikuntzen ondorioz %7,2ko betetze tasa dute», gehiegizko 50 plaza, beraz. Gainera, azken berrikuntzak egin aurretik, Gizarte Zerbitzuen mapan zegoenak baino gehiago zituen. Lurraldeko orekaren ikuspuntutik, «kontraesankorra» dela adierazi zuten. Donostialdeko kasuan ere, desorekak «nabarmenak» dira.

Bestalde, Jokin Bildarratzek esan zuenez, «Tolosaldean eskaintzen diren zerbitzuak hobekitzeko herritarren babesa behar da». Hortaz, plataformak 2010erako «eskubidez dagokigun» egoitza behar den lekuan defenditu ahal izateko behar adina datu aurkeztu diezkie udal ordezkariak.

**DATUAK ▶****EGOITZAK****Donostialdea.** Andoain, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria. Guztira, 27.**Oarsoaldea/****Bidasoa-Txingudi.** Errenteria, Hondarribia, Irun, Oiartzun eta Pasaia. Guztira, 10.**Deba goiena.** Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Mutriku, Oñati eta Sorluze. Guztira, 11.**Urola Garaia, Erdia eta Kosta.**

Aia, Azkoitia, Azpeitia, Legazpi, Zarautz, Zestoa, Zumaia eta Zumarraga. Guztira, 9.

**Tolosaldea/Goierri.** Beasain, Ordizia, Segura, Tolosa, Villabona eta Zizurkil. Guztira, 7.**EGUNEKO ZENTROAK****Donostialdea.** Andoain, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil. Guztira, 16.**Bidasoa-****Txingudi/Oarsoaldea.**

Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## GANDIAGA TOPAGUNEA, ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

### “Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza” ERAKUSKETA

**HONAKO EGUNETAN ZABALIK:**  
Azaroak 19, 20, 26, 27  
Abenduak 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11

**ORDUTEGIA:**  
11etatik 14:00etara  
eta 15:00etatik 18:00etara



## VILLABONA ▶ MENDIA

Jose Ramon Agirrek eskainiko duen *Patagonia* ikusentzunezkoaren irudi bat. HITZA

## 22. Mendizale Astea antolatu du Aizkardik datozen egunetarako

Etzi hasi eta hilaren 27a arte, mendia atsegin dutenek ikusentzunezko interesgarriak eta ibilaldia izango dituzte

## ERREDAKZIOA

Aizkardi mendi elkarteak beste behin antolatu du Mendizale Astea. 22. edizioa izango da etzi hasiko dena. Beti bezala, hitzaldi eta proiektio interesgarriak ikusi eta entzuteko aukera izango dute mendia atsegin dutenek.

Etzi, hilak 21, izango da emaldien lehen eguna. Jose Ramon Agirrek *Patagonia* proiektioa eskainiko du. Hego Ameriketako lurralde galdu horretan, Ozeano Bareko itsaso bizietan itsasoratzen diren glaziarrak, haize gogorrak zorrotutako gailurrak eta Antartidako paisaia garbi gardenak aurki daitezke, besteak beste. Ikusentzunezkoan, Agirrek aurrez

aurre jarrita aurkezten ditu paisaiaren edertasuna eta Tierra del Fuegoko lurretan bizi diren Onas eta Selknam familien ondorengoen bizimodua.

Asteartean, hilak 22, Gerardo Telletxeak eta Jon Mujikak *Torres del Brujo* izenburutzat duen emanaldia eskainiko dute. Asteazkenean, hilak 23, Eneko Pou-ren txanda izango da eta *Ski estremoia Pirinioetan* izeneko proiektioa aurkeztuko du. Ostegunean, Juan Vallejo *Annappurna azken zortzimilakoa* proiektioa erakutsiko du. Emanaldi guztiak Gurea zinema aretoan izango dira, 20:00etan, astearteko emanaldi izan ezik, hori 20:30ean izango baita.

Mendizale Astearen amaiera

ekitaldi bezala, hilaren 27an, igandean, mendi ibilaldia eta bazkaria antolatu dute Aizkardikoeak. Hitzordua Olaederra kiroldegia-eremuan izango da., 08:30ean.

## Amasako XIII. Mendiatioia

Urtero legez, San Martin jaien ondorengo igandean, hau da, bihar, Amasako Mendiatioia antolatu dute. Aurtengoa XIII. edizioa izango da eta interesatuek proba hasi baino lehenago azaldu behar dute izena ematera. 11:00etan ekingo diote lehiaketari. Ondoren, Zeauriko Miguel Angel Goioagak eta Amasako Mikel Arretxek beren indarrak neurtuko dituzte ingudean.

## ADUNA ▶ KULTURA

## Kultur Asteko azken ekitaldiak asteburuan

## ERREDAKZIOA

Adunako Kultur Astearen azken ekitaldiak izango dira asteburu honetan. Gustura dau-de antolatzaileak orain artekoak nola joan diren ikusita. Orokorrean jende ugari—haur zein heldu—joan da antolatutako proiektio, mahai-inguru, hitzaldi eta antzerki emanaldietara.

Gaur goizean goiz abiatuko dira Arabako Errioxara. Bidaia interesgarria izango da, pare

bat upeltegi bisitatu, inguruak ezagutu eta bazkari eder bat egiteko parada izango dute. Kultur Astearen azken eguna izango da bihar. 11:00etatik 14:00etara EHNA-ren tramitazioa egingo dute udaletxean. Horretarako beharrezkoak izango dira erroldaren ziurtagiria, 3 argazki eta 15 euro ordaintzea. Arratsaldean, Poxpolo eta Mokolo pailazoan emanaldia eta ondoren, barriakotea, gaztainak, taloak... ezterrria eta urdaila bapo asetzeko.

## ASTEASU ▶ GIZARTEA

## EHNA tramitatzeko aukera gaur eta bihar

## ERREDAKZIOA

Asteasuko Bai Euskal Herriari lan taldeak Naziotasun Asteburua antolatu du. EHNAREN tramitazioa burutuko dute gaur eta bihar. 15:30etik 17:30era izango da gaurko hitzordua. Udaletxean egingo dute eta beharrezkoak izango dira erroldaren ziurtagiria, 3 argazki eta 15 euro. Argazkiak eta errolda agiria egiteko baliabideak izango dira udaletxean bertan.

Bihar ere EHNA tramitatzeko aukera izango da, 11:30etik 14:00etara, udaletxean. Horrez gain, eta eguna girotzeko, herri kirolak antolatu dituzte. 12:00etan ekingo diete, eguraldi ona bada herriko plazan, eta, bestela, frontoian. Xiba elkarteak antolatutako herri kirolen lehiaketan txapeldun izan zen Asteasuko taldea beste herri kirol batzuen aurka ariko da sei herri kirol ezberdinetan. Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.



**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bihurtu. 800 enpresa, ikastetxe, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bako guretzat euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.baiuskarari.org](http://www.baiuskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

hitza

## TOLOSA ▶ KIROLAK

# Herri kirolen jaialdi erraldoia Beotibarren

Aizkolari azkarrenaren eta harri-jasotzaile azkarrenaren sarirako lehiatuko dira; Beotibarren izango da bihar

## ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkora antolatzen duen Egur Sport enpresak aizkolari azkarrenaren eta harri-jasotzaile azkarrenaren sariak antolatu ditu Tolosan. Ekitaldia bihar izango da 12:00etan, Beotibar pilotalekuan, Babarrun Astearren harira.

Aizkoran, 45 ontzako eta kana-erdikoaren bitarteko enbor bat moztea izango da lana. Kanporaketak egingo dituzte eta azkenean finala jokatuko dute. Parte hartuko duten aizkolariak, Amillano, Atutxa II.a, Larretxea II.a, X. Mindegia, Mugertza II.a, Aldape, Mugertza III.a, Rodriguez II.a, Larretxea III.a, Otaegi, Rekondo, Arria Va,

Mendieta, Iriarte, Pikabea, Donato Larretxea, Erasun, Vicente, Patxi Larretxea, Esnaola, Zubiaga, Mugertza I.a, Kafñameres, Etxeberria, Arrospide, Mindegia, Senosiain II.a, Otaño, Rodriguez I.a, Llanos, Senosiain I.a, Lasa, Flores, Garitainandia, Erdozia, Lopez, Aierbe II.a, Olano, Etxebeste, Mujika, Telletxea, Zubizarreta, Barberena, Nazabal, Peñagarikano, Olasagasti, Txapartegi, Elorriaga, Telletxea eta Etxeola izango dira.

Bestalde, harri-jasotzaileen kasuan, hiru lehiaketa izango dira: 100 kiloko zilindroari 20 jasoaldi erlojuz kontra, kubikoarekin erlojuz kontra 10 jasoaldi eta azkenik, bolarekin erlo-



Perurena II.a. J. RUIZ/ARGAZKI PRESS

juz kontra 15 jasoaldi. Hala, zilindroarekin, Ostolatza, Irigoien, Urpe, Izeta III.a, Urrutia, Atxa, Barinaga, Tigre, Agirre, Telleria II.a, Izeta IV.a, Telleria

III.a, Astorkia eta Telleria I.a ariko dira. Kubikoarekin, Ostolatza, Irigoien, Urpe, Izeta III.a, Urrutia, Landarbide, Barinaga, Agirre, Telleria II.a, Izeta IV.a eta Elosukorta, eta bolarekin, berriz, Ostolatza, Irigoien, Urpe, Izeta III.a, Urrutia, Landarbide, Atxa, Saralegi, Goikoetxea, Zelailuze, Mintxeta II.a eta Elosukorta lehiatuko dira.

### Marka berria ezarri nahian

Bestalde, Iñaxio Perurena 280 kiloko harri koadroa bizkarrean gainean berdintzen ahaleginduko da jaialdi berean 5 minutuko saio bakar batean. 21 urteko leitzarrak hori egitea lortuko balu, bere marka pertsonala hobetuko luke. Eta, gainera, pisu gehien altxatu dutenen artean laugarren geratuko litzateke, Saralegi, bere aita Iñaki Perurena eta Gibitegiren atzetik.

Herri kirol zaleentzat galdu ezinezko hitzordua, beraz biharkoa. Izan ere, bertaratze-ko aukera ez dutenek telebis-taz ere ikusi ahaliko dute jaialdia, ETBk zuzenean emango baitu.

## BERASTEGI ▶

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte astebururako

Kultur Astearren baitan, gaur 18:00etan futbol txapelketako finalak jokatu dituzte pilotalekuan, eta 22:00etan Jone bakarariaren emanaldia izango da eskolako gimnasioan. Bihar, berriz, mendi ibilaldia egingo dute Mustar-zaharren barrena 09:00etan plazatik aterata, eta 16:00etan Mus Txapelketa azkarra Urepele biltokian.

## IBARRA ▶

## Bertso afaria egingo dute gaur Gaztetxean

Gaztetxearen XII. urteurrenaren antolatu duten Kultur Astearren baitan, gaur bertso afaria egingo dute Jexux Mari Irazu eta Mañukorta bertso-lariekin. Txartelak Atari tabernan eskuratu ahaliko dira.

## TOLOSA ▶

## Eskualdeko telebista sortzeko bilera

«TEPE martxan jarri aurretik Tolosaldean euskara esparru batzuetan zer egoeratan zegoen ikusteko diagnostikoa egin zen, eta, besteak beste, Tolosalderako herri komunikabide sendoa sortzea gomendatu zuen. Egunkaria eta Interneta martxan dira aspaldi, eta telebistari heltzeko garaia iritsi da orain». Hori dela-eta bilerrako deia egin du Tolosaldeko Telebista Sustatzeko Taldeak; astelehenean izango da, 20:00etan, Kultur Etxean.

## BALIARRAIN ▶

## Egitarau oparoa Kultur Elejira amaitzeko

Kultur Elejiraren baitan, gaur 19:30ean, kultur gelan, Pello Zabalak eta Andoni Aizpuru hitzaldia eskainiko dute. Bestalde, Kultur Elejiraren azken eguna bihar izango da, eta egun horretan Jubilatuen Eguna ospatuko dute herrian. Hala, 11:15ean meza izango da, ondoren hamaiketako, 13:00etan herriko jaien bideo emanaldia eta 14:00etan bazkaria Zartagi jatetxean.

## LEABURU ▶ GIZARTEA

## EHNA Eguna antolatu dute bihar herrian

11:00etan hasiko dira tramitazioekin; txalapartariak eta pilota partidak izango dira

## IÑIGO TERRADILLOS

Bihar 11:00etan bertakoek nahiz beste herrietakoek EHNA egiteko aukera izango dute Leaburuan. Horretarako, karnetaren tamainako 3 argazki, errolda agiria —bertakoak ez direnak— eta 15 euro beharko dituzte. Eguraldiak laguntzen badu herriko plazan egingo dira tramitazioak, bestela, udaltxe barruan. Hiruga-

rreren aldia da Leaburu-Txarman egun hori antolatzen dutela, eta orain arte 50 herritar inguruk egin duela eskaera adierazi dute, portzentai handia, beraz.

EHNA Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: 11:00ak inguruan txalapartariak ariko dira; 12:30ean infantelekin binakako bi partida izango dira, eta, ondoren, txalapartarien beste saio bat.

## BERROBI ▶ KIROLAK

## Gaur hasiko da XIV. Frontenis Txapelketa

168 parte-hartzaile izango ditu aurtengoak; abenduaren 3, 4, eta 7an izango dira finalak

## I. TERRADILLOS

Gaur emango zaio hasiera XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketari. Goizean, 08:00etan hasiko dira pilotariak lehiatzen eta 21:00ak bitarte hainbat partida jokatu dituzte. Eta horrela jarraituko dute bihar eta hurrengo aste-larunbata eta igandean ere. Partida horietatik guztietatik abenduaren 3, 4 eta 7an joka-

tuko diren finalerako sailkatu dira.

168 parte-hartzaile izango ditu denera aurtengo txapelketak; 59 bikoteka ariko direnak, 40 banaka jokatu dutenak eta emakumezkoetan lehiatuko direnak, berriz 5 bikote. Inguruko herrietatik ez ezik, besteak beste, Beasaindik, Donostiatik, Bergaratik edo Olitetik etorritako jendea ere ariko da Txapelketan.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**

**Salgai (Tolosa)**, Pisua Belate ibiltokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.  
**Salgai (Tolosa)**, Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.  
**Salgai (Tolosa)**, Pisua San Frantziskon, 126m2. Garajearekin.  
**Salgai (Tolosa)**, Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian.  
**Salgai (Tolosaldea)**, Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Plaza zaharra...  
**Alokatzeko (Tolosa)**, Lokal komertziala Erremontari kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa)**, Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean...

943 65 17 13 / 677 46 09 16

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Karabana.** Roller karabana salgai. Interesatuak deitu 661 35 92 85 zenbakira.  
**Autoa.** Citroen Xara 1.9 diesela, 2001 urtekoa. 78.500 kilometro. Egoera onean. Beti garajejan. Deitu 653 74 05 11 zenbakira.  
**Egurra.** Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irakurleen iritziak.** Gure egunkarian argitaratu den edozein berriren inguruan zure iritzia eman ahal duzu webgunean. Gainerako iritziak irakurri eta eztabaida sortzeko aukera ere ematen dizu. Eskualdeko zerbaiten berri eman nahi izanez gero ere, baliabide egokia da.

## LEITZA ▶

**Batzar berezia du gaurkoan Guraso Elkarte Katolikoak**

Hartuko dituzten erabakiak «garrantzia handikoak» izango direla iragarri dute

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean Leitzako Kris-tau Guraso elkarteak batzar berezia egingen du, Oialden, lehen deialdia 19:30ean eta bigarrena 20:00etan izanik. «Batzar horretan hartuko diren erabakiak garrantzia handikoak» izanen direla iragarri dute eta «bazkide guztien parte-hartzea» eskatu dute. Bilkuran gai mordoska izanen omen dituzte eztabaidagai, han aurkeztuko dituzten proposamenen inguruan eta erabakiak hartu beharrekoak omen: «Uztailaren 29an egindako batzarreko aktaren irakurketa» egin ondoren, «elkartearen egoera ekonomikoaren berri» emanen dute. Jarraian «elkartearen egitasmo orokorra», aurrena eta «etorkizunerako aurreikuspen ekonomikoa», ondoren, izanen dituzte hizpide.

## LEITZA ▶

**Aurrera gaztea Taxoarren ariko da Larraonarekin**

J. ASTIBIA

Jubenilen bigarren mailan gaur du partidua Aurrerak Larraona Claret-en aurka: 16:00etan hasiko da, Taxoarren kirol kompleksuan, 3. eranskineko futbol zelaietan. Leitzarrei egokitu zaien taldea, sailkapenean puntu gutxiengoz dituzten taldeen artean, Aurrera baino leku bat gorago bakarria dagoena da. Aipatzekoa da aurreko jardunaldian Aoizen aurka aritu zirela Arkixkilen, sailkapen orokorrean bigarren doan taldea izaki, 1 eta 4 galduz. Edozein moduz, talde berria da Aurrera, 25 gazteak aurrean ari baitira belarrezko zelai handian lehenengoz jokatzeko eta ahalegin handia egingen ari dira egunez egungo entrenamendu saioetan.

## GIZARTEA ▶

**Aisialdi tailerretarako begiraleak behar dira, Eguerritako oporretan**

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak egin berri du deialdia eta astelehenetik aurrera aurkez daitezke eskaintzak

JAIONE ASTIBIA

Leitza, Areso, Goizueta eta Arano Euskara Zerbitzuak haur-errentzako aisialdi tailerrek antolatuko omen ditu Eguberriko oporraldian. Hori dela-eta Leitzarako eta Aresorako hiru begirale behar direla jakinarazi dute; beste bi herrietarako ere beste hainbeste behar di-

tuzte, eta eskaintzak egiteko deialdia irekiko dute hurrengo astelehenetik aurrera.

Parte hartu nahi duenak «18 urtetik gorakoa eta euskalduna izatea» derrigorrezkoa du. Horrela, hilaren 21etik abenduaren 2ra eman behar da izena, Euskara Zerbitzuak Leitzan duen egoitzan. Hori bai, «bi astetarako egitaraua aurkeztu»

behar dute izangaiekin izena ematerakoan: «Guztira 18 ordutarako programazioa pres-tatu eta proposamen hori da kontutan hartuko dena, begiraleka aukeratzeko orduan», argitzen da deialdian.

Informazio gehiagorako 948 510 814ra dei omen daiteke, edo leitzaldeko@euskalnet.net-era idatzi.

## EUSKARA ▶

**Euskarazko gestioa egiteko baliabideak eskura**

J. Astibia ▶ Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak Bai Euskarari Ziurtagiria duten Leitzako nahiz Aresoko elkarte, komertzio eta enpresa titkiei, euren gestioa euskaraz eraman dezaten baliabideak jarri dizkie eskura: euskarri informatikoa, BDP programaren aurkezpena egin zieten orain berri-

ro, sektoreka egindako bileretan; fakturak, albaranak, tiketak, biltegien kontrola... eramateko baliabideak, ukipen-pantailaren bidez maneiatu daitezkeena. Aurkezpena arlo bakoitzeko ereduak jarri egin zuten Softekin enpresakoek, programaren egileek. J. ASTIBIA

## KIROLAK ▶

**Jaunarena eta Olano Lizarrako finalean bihar**

Bakoitza bere adinean, lau t'erdiko txapela lortzeko lehian ariko dira buruz-burukoan

J. ASTIBIA

Jon Jaunarena leitzarrak eta Anartz Olano aresoarrak, bakoitzak bere adinean, Lizarrako Lau t'erdiko Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte, biek hala biek, bihar Nafarroako herri horretako pilotalekuan izango den jaialdian. 10:00etan hasiko da, hain zuzen ere, norgehiagoka multzoa.

Horrela, Anartz Olano hirugarren partiduan aterako da kantzara, eta Naxerako eskolako Prados izanen du aurrez aurre; Jon Jaunarenak, berriaz, jaialdiko seigarren partiduan irten beharko du indarrak neurtzera, eta Barañaingo (Nafarroa) eskolako Taintaren aurka leihatuko duela iragarri dute pilotazaleek.

**Burlatan ere, lehian**

Finala oraindik ez bada ere, Burlatako Txapelketan ere ari dira parte hartzen eskualdeko jokalaria, eta gaur bertan dituzte partidua, hain zuzen. 16:00etan hasiko dira neurketak Burlatako frontoian.

Alde batetik, Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Jon Iparragirrek eratuak bikoteak jardun beharko du gazteen mailan, eta, beste alde batetik, Oihan Alduntzinek eta Xabier Alustizak osatutako bikoteak jardungo du kadeteen mailan. Bi bikoteek lan ona egin beharko dute finalerako txartela lortu nahi badute.

**hilberriak eta urteurrenak ▶****Josefina Aldasoro Oiarbide**  
(Antonio Imazen alarguna)

Azaroaren 18an hil zen, Donostian, 97 urte zituela.  
—Goian bego—

Bere alabak: Rosa, Glori eta Aurora; suhiak: Felix Soto eta Juntxo Gurrutxaga; bilobak: Ixiar eta Mikel, Andoni eta Maider, Olatz eta Patxi, Maider, Ainhoa eta Pablo, Nerea; birbilobak: Oier, Ekain eta Naroa.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR, arratsaldeko 17:30ean, MARIAREN BIHOTZA ELIZAN, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

DONOSTIAN, 2005eko azaroaren 19a

**▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak**

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info







AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Albiztur.** Albizturko Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu: *Office-n teknika*, *Kudeaketarako erabilera informatikoak* eta *Zinketa kliniko eta asistentzialak*. 210 ordukoak dira lehen biak, eta 200 ordukoa bestea, eta Berastegiko eta Bidaniako udaletxean izango dira, hurrenez hurren. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala udaletxera. **Baliarrain.** Kultur Elejiraren baitan, Pello Zabala eta Andoni Aizpuru eguraldiaren eta tenporen inguruan ariko dira 19:30ean, Kultur gelan. **Gaztelu.** Gazteluko Udalak udaletxean eraikinean kokatutako taberna zerbitzua ustiatzeko izena emateko epea zabaldu du. Pleguak eskuratzeko Udal bulegora jo behar da; hilaren 28a da izena emateko azken eguna. **Tolosa.** Deskontrol taldea, Bonberenean, 22:30ean. **Tolosa.** Mendi Hamabostaldian, Txetxus Barandiaranen bideoa, abentura kirolen inguruan, 18:30ean, Oargi mendi elkartearen eta Angel Navasen hitzaldia McKinleyra egindako igoeraz 20:00etan. **Villabona.** Euskal Herriko Txapelketaren baitan, seniorren 1. mailako Joko Garbi partida: Villabonako Behar-Zana eta Uztaritzeko Kapito Harri taldeen arteko neurketa, 18:30ean, Amasako Udal pilotalekuan. **Zizurkil.** Ez dok hiru bikoteatroaren *Larru haizetara* antzezlan, 20:00etan, Abulondoko kultur etxean. Ondoren, Umorezko Bakarrizketa Lehiaketako sari banaketa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
Tolosa. Ollarrea, A. Korreo kalea, 2.  
Telefona: 943 67 01 28.

IRRATIA

**Goiko Irratia (107 FM)**  
13:00. Titirijai Jaialdirako sarrerak zozketatuko dituzte *Komerra* saioan. Zozketan parte hartzeko bi bide dituzte entzuleek: komerra@hotmail.com helbide elektronikoa eta 652 708 850 telefono zenbakia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iriztien erantzukizunik.

# Negurako dotore, HITZAekin

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ HITZAK kamisetak, sudaderak, motxilak eta gerriko poltsak atera ditu emakumeentzat zein gizonentzat; egoitzan dira salgai

NOELIA LATABURU

**H**asi gara jadanik neguren lehen zantzuak nabaritzen. Neguak beti lagun ekartzen duen hotzaren etorrerarekin batera, askotarikoko produktuak atera ditu HITZAK; gizonaentzat eta emakumeentzat baliagarri dira, eta horietako batzuk haurrentzako eta gaztetxoentzako modukoak ere badira. Guztiak ere modernoak, goxoak, erabilerrazak... eta politak, oso politak! Dagoeneko HITZAKO produktuak kalean ikustea ohiko bilakatu da gure eskualdean eta, beraz, abian den kanpaina honekin, azken denboraldietan egindakoen jarraipena bideratuko da.

Aurten ez dira soilik soinean eramateko arropak izango, izan ere, bestelako produktuak erosteko aukera ere izango da. Batetik, tamaina eta kolore ezberdinetako kamisetak daude aukeran. Guztiak 15 eurotan saltzen dira. Negurako oso egokiak diren sudaderak ere izango dira negurako. Azken hauek ere tamaina, kolore eta modelo desberdinetan saltzen dira. Aukeratzan duena aukeratu ere, erosleak 20 euro ordaindu beharko du.

Eta ez soilik kamisetak eta sudaderak; produktu gehiagoz gozatzeko aukera ere izango da aurtengoan; motxilak eta gerriko poltsak atera ditu eskualdeko euskarazko egunkariak. Lehenengoak mendirako oso egokiak dira, hainbat koloreren artean aukeratu ahalko delarik. 25 eurotan daude salgai. Bigarrenak, berriz, gazte-



Kamisetak, sudaderak, motxilak eta gerriko poltsak daude salgai HITZAREN Tolosako egoitzan. IMANOL GARCIA

entzako nahiz helduentzako egokiak dira, kalerako zein mendirako. Beraien tamaina egokia da eta kolore ezberdinetakoak daude; urdinak eta beltzak eta horiak eta berdeak, hain zuzen ere. Hauek 20 euroren truke eskuratu ahalko dituzte horretarako interesa dutenek. Guztiak ere TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Tolosan (Araba etorbidea 5, behea) duen egoitzan ikus eta proba daitezke, bai eta erosi ere.

Euskararen alde lanean

HITZAKO harpidetza eginez eta eskualdeko euskarazko egunkaria irakurri bakarrik ez, HITZAKO kamisetak eta sudaderak soinean eramanez eta mendirako edota lanerako motxilak eta gerriko poltsak erabiliz ere egin dezakegu hementik aurrera euskararen alde. Ez galdu, bada, aukera. Etorri eta ikusi! Ziur ez zarela esku hutsik aterako.

SALNEURRIAK ▶

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak Tolosan duen egoitzan dago salgai HITZAK ateratako materiala. Hona hemen bakoitzaren salneurria:

- Kamisetak.** 15 euro.
- Sudaderak.** 20 euro.
- Motxilak.** 25 euro.
- Gerriko poltsak.** 20 euro.

AGURRAK ▶



**ZORIONAK**  
Haritz Errazkin (Ibarra).  
Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



**ZORIONAK**  
Aitor Altuna eta Agurtzane Oreja (Ugarte-Ibarra).  
Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
Oihan Arrospeide Uzkudun.  
Zorionak bihurri!  
Maite zaitugunon partetik.

**HITZA, zorion agurren tarte**  
Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!